

ARRASATE PRESS

1993ko martxoak 26

186. zenb.

Proiektua

**Deba Ibijaren
urak aztertze
ko zentrua**



Karapaixoa, opari goxoa

Artia (Bedoña)

Gaur Bedoñako Artiara jo dou, bertan bizi dan Gregori Markaide Pildaineana, jaixotez Uribarriko Olan basarrikue.

72 urte dauko gaur egun eta 27 urtekin ezkondu zan Artiara bertako Pio Etxabekin. Oin alargundute Felix Garai bere koinetuaz eta Angel eta Pedro seme bi gaztiekinekin bizi da. Beste bi badauko, Juan Inaxio eta Tomas, kanpora ezkondu da zenak.

Pio Garaik beti basarri lanetan jardun eben. Beste baserritar batzukin batera "Lana" kooperatibako fundatzaile eta lehen presidentie



izen zan. Bera, Gregori, ume-umetatik tratuen ikesittekue da. Ezkondu aurretik be bajetan ei zan plazara eta ezkondu gero be lan horrekin ja-

rraitu eben. Laster jareittekue asmue dauko baiñe gaur be oso ezaunek die Mundraueko plazan bere ogixek, batez be arto urunaz eitten dabena.

Penaz komentetan eben baserriko jeneruek ezautu dabent atzerakadie eta bide horretatik jarraitute, basarrixe galtzera doiel.

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



CF
CARFRA

Vanesa



ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**



**AFARI ETA
BAZKARI
EDERRAK!**

Tfnoa: 71 41 21

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundilaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Giza-ekologia

Ez da erraza, gaur egun, gorputza bere egokiera fisikoan mantentzea: eder eta lirain, indarrak tinko, osasuna garbi. Mendia, kirola, eta jan-edarien kontrola beharrezkotzat jotzen ditugu. Naturaren ekologia ez ezik, gure gorputzaren ekologia ere zaintzen hasiak gara. Nork esan orain dela urte batzuk, hainbeste kontrola, barau eta sakrifizioak, sabelaren gira, kolesterola eta beste zenbait edertasun eta prestasunak zaintzeko erabiliko genituela!... Garizumako barau gogorrenak ere motz geratzen dira mehetze erregimenekin konparatuz.

Nola doan aldatzen mundua, nola mundukoak! Orain dela urte batzuk, Garizumaren barau eta bijili legeak zapuzten genituen, ta gaur, gauregungo modak itsu-itsuan onartzen ditugu; lehen, drogaren askatasuna kaleetan ohiukatzen genuen ta parlamentuan legalizatzen, eta orain, zigarroa bera ere debekutzen dugu; lehen... baina utz dezagun, gure idatz neurria kontrajarrerekin beteko genduke eta.

Hauxe esan nahi nuen: Lege batzuetatik (Eleizarenak, alegia) "askatu" (?) ditugu geure buruak, baina gizarteko esanetara eta moda inposaketara atxiki gara. Jakintsuak arrazoia: "Nola-baiteko Jainkorik gabe ezin da bizi gizakia: Jainko handia uzten badu, jainko txikieta jo ta mugatuko da".

Badirudi, gaurko gizarteak jainko txikieta jo duela: gorputz osasuntsua ta estetikoak, giroki-detasuna, dirua eta errazkeria, besteen begiko irudi, "bizitzeko eta gozatzeko" lehia, presa....

Dena dela, kontraesan handiak bizi ditugula ezin uka. Hainbeste zaindu ta gero, ah zer nolako jipoiak ematen dizkiogun gorputzari ostiral eta larunbat arratsetan, festa eta "jolgorio" gauetan, "behingogatik" atxikian edota....

Ez litzaiguke gaizki etorriko guztioi, gure izakia, landare edo zuhaitz

baten arduraz gutxienez, ekologikoki zaintzea. Garai hauetan landu ta zaintzen dira baratza, Udaberriak bizitza berria baitakar. Behar bada horretxegatik, Garizuman, gorputza eta izpiritua disziplinatzen, kontrolatzen eta bere onera ekartzten saiatzen dira kristauak, Pazko jaietan loratuko diren itxaropenez.

Irrifar ironiko hori gorde ezazu, mesedez. Ez zaitez, ez gaitzen, Garizuma dela eta, legedi eta rito huts trufagarrian erori. Hara zer dioen Isaias profetak:

"Honela mintzo da Jaungoiko Jauna:

Hau da nik maite dudana baraua:

Eten bidegabeko kateak,

askatu uztaurren lokerak;

utzi libre menpekoak, puskatu uztaurre guztiak;

eman zure ogitik, gose denari;

etxean hartu aterperik gabeko behartsuak;

jantzi bilutzik dagoena,

eta ez bazterre utzi zure urkoa.

Orduan zure argia, egunsentia bezala zabalduko da,

eta zure osasuna berehala erneko;

aurretik joango zaizu zuzentasuna,


eta ondotik Jaunaren aintza.

Orduan zuk hotsegin, eta Jaunak erantzungo dizu;

zuk deadar egin, eta Harek honela erantzungo:

Hemen nauzu.

SAGARRAGA
(JOSE MARI ASTIGARRAGA)




• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.-20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karnele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATEPRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba. **Modeloa:** Patrizia

GORKA

ILEAPAINDEGIA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 76 08 14 / 77 13 78

Memesa

79 42 22



ITURRIOTZ

taberna

**Girorik
jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Martxoaren 16ko langileen manifestaldiari buruz

Roneoko Enpresa Batzordearen inizatiba hau txalotzeaz gain, langileen partaidetzari dagokionez, manifestaldia benetan arrakastatsua izan zela esan beharra dugu, azken 10 urteotan Arrasaten izan den manifestapenik handiena egin baitzen.

Gure ustez, arrakasta horretan eragin handia izan dute patronalak enpleguari egin dizkion erasoek, kalte-tuek beren ordezkariekin izan duten elkartasunak eta, batez ere, urte askoan lehen aldiz, Sindikatuek protagonismo osoa Roneo, Union Cerrajera, Ale eta Uribesalgoko Enpresa Batzordeei uzteak.

Aurrera begira, apostu egiten dugu batasunezko esperientzia honek jarraipena izatearen-alde eta, enpresa bakoitzaren mobilizazioak bakarrik gera ez daitezen, beste enpresa batzuetara ere, nahiz eta txikiak izan, zabaltearen alde, izan ere, enpleguari egiten zaizkion erasoek erantzunik zabalena, handiena eta solidarioena behar dute.

Halaber, hausnarketarako deia egiten diegu langile guztiei, enpresen krisialdiak konpontzeko gehiegitan ematen diren irtenbide indibidual eta pertsonalen gainean pentsatzeko. Horretaz

gain, datozen belaunaldien etorkizunari buruz ere pentsatu beharra dago, sistema kapitalista honek langabezia, desneplegua, emigrazioa edo gurasoekiko dependentzia baino ez baitie eskaintzen. Enplegurik onena, galtzen ez dena.

IMANOL EXPOSITO

"Lau katuk" ikastolaren etorkizuna erabaki

Joan den ostegunean, martxoak 18, batzar garrantzitsu bat zegoela eta, Ikastolara hurreratu nintzen. Mila eta lauhun bazkide inguru garelako jakinik eta gaia hain garrantzitsua zenez, jende mordoska bat ikustea espero nuen, baina askotan gertatu ohi den bezala, oso gutxi ginen bertan.

Hain jende gutxi ikusteak harritu egin ninduen, baina nire harridura haunditu egin zen jakitean berrehun eta hirurogeitahiru botu inguru nahikoa eta sobera zirela Ikastolak bere edifikazioa eta lur guztien jabegoa Udalaren izenean jartzeko.

Erabaki garrantzitsu hau era honetara hartu zen, baina hau ez da hemen amaituko. Laster Eskola Publikoaren auzia dela eta,

beste batzar garrantzitsu bat izango dugu. Aurreko bilera-ko ikusita, Ikastolako bazkideoi erreflexio sakon bat egiteko eskatzen dizuet eta eguna heltzen denean botaziora joateko, aurrekoan bezala gertatu ez dadin, eta horrelako erabaki garrantzitsu baten aurrean Ikastolaren etorkizuna hain botu gutxi (263 botu aurrekoan sobera izan zen) erabaki ez dezan. Azken finean, "lau katuk" nahikoak dira hain pisuzkoa den erabakia hartzeko? Badakizu, etor zaitez faltarik gabe hurrengo batzarretara.

LURDES MUJICA

Zaldibarko Futbito Txapelketa

Joan den asteburuan, San Jose eguneko jaia medio, ez zen Zaldibarko Futbito Txapelketako ihardunaldirik jokatu. Hori dela eta, aste honetako ARRASATE PRESSEN ez dago futbito txapelketari buruzko informaziorik. Asteburu honetan ihardunaldi berri bat jokatu da Zaldibarren eta hurrengo ARRASATE PRESSEN izango duzue informazioa irakurgai.



Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

Karapaixorik egin edo hartzen duzu?



Adrian Palacios
Jubilatua (63 urte)

Emazteak urtero egiten ditu, loibentzat, berak egiten ditu gainera. Herriko ohitura zaharrak ez dira galdu behar.



Ester Gutierrez
Etxekoandrea

Ohitura betidanik ezagutzen dut eta polita iruditzen zait, galduz gero pena hartuko nuke. Nik neuk, besoetakoei urteko egiten diet, detailetxo bat da.



Julian Azpitarte
Jubilatua (76 urte)

Batzuetan egiten dut, baina ahaztu ere egin izan zait, zaharrak ere bagara eta.



Jose Ignacio Zubia
Aholkularitzako langilea (26 urte)

Ez dugu jarraitzen, lehen bai, baina orain ez. Hala ere, niri ez didate sekula egin.




Andresi Irigoien
Jubilatua (66 urte)

Ez naiz hemengo, baina asko gustatzen zait ohitura hori. Pentsatzen dut pena bat dela ohitura hori galtzea, galduz doa eta.



Florentina Izagirre
Jubilatua (74 urte)

Lehen goiturak dira horiek, loibei eta egiten diet. Lehen norberaren besoetakoei egiten zitzaizen, obligazio moduan izaten zen; orain ogia apreziatu ere ez dute egiten.



Luis Arrieta
Fagorreko langilea (32 urte)

Nire amak badu ohitura; ni ezkondata nago, baina hala ere urtero egiten didate karapaixua.



Josefa Gallastegi
Jubilatua (75 urte)

Urtero, urtero egiten diet iloba biei; aurten oraindik ez dut egin baina egingo diet. Okindegian enkargatzen ditut.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iarruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

GIZA-ORIENTAZIOA
Kristalezko bola / Tarota
PILAR OCONHOR
Ordua hartuta: 79 67 65

TXITXINPE

BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak,
urdaitegia, fruitu
lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxoak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
.....	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	71 44 52
Arexabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
Udalizaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Arexabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburategia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 26	
Egunez: Azkoaga, Ferrerías.	Gauz: Azkoaga, Ferrerías.
Larunbata 27	
Egunez: Español, Iturriotz.	Gauz: Español, Iturriotz.
Igandea 28	
Egunez: Corcuera, Musakola.	Gauz: Corcuera, Musakola.
Astelehena 29	
Egunez: Irizar, Erguin.	Gauz: Irizar, Erguin.
Astearte 30	
Egunez: Amezuza, Santa Marina.	Gauz: Amezuza, Santa Marina.
Asteazkena 31	
Egunez: Ruiz, Maala.	Gauz: Ruiz, Maala.
Osteguna 1	
Egunez: Morales, San Andres.	Gauz: Estella, Matxiategi.

26 OSTIRALA

ZINEA

“Luna de miel para tres” (7,10)

MAHAINGURUA: ARRANTZA ETA EHIZA

“Ehiza: ekintza ekologikoak?” mahaingurua. Partehartzai-leak: “Asociación de No Cazadores”, Triunfo aldizkariko abogatu, Gorosti Zientzi Elkarte ordezkaría. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

BERTSO-TRIKITI AFARIA

Bertsolari eta trikitilarien afaria. Partehartzai-leak: Arantzazu Loidi, Jon Sarasua, Aitor Sarasua, Jon Iñaki Izarzelai eta Arrasateko trikitilariak.

ROCK KONTZERTUA

“Obstaculo” taldearekin rock kontzertua. Gaueko 9.30etan. Arrasateko Gaztetxean. Sarrera: 300 PTA.

27 LARUNBATA

ZINEA

“Acción mutante”(5,7.30,10)

ALOSTORREA ABESBATZAREN EMANALDIA

Alostorrea Debako abesbatzaren emanaldia. Arratsaldeko 8etan. San Frantzisko Parrokian.

GIPUZKOAKO IKASTETXEEN ARTEKO GIMNASIA KANPORAKETA

Gipuzkoako ikastetxeen arteko gimnasia kanporaketa. Arratsaldeko 4.30etan. Musakolako Kiroledegian.

KORRIKAREN DIRU BILKETA EGUNA

Korrikari buruzko kuestazio eguna: 12.30etan Arrotaitz eta Lore Gazteak dantza taldeen kalejira, 17.30etan Korrika txikia, 18.30etan Goikobalu abesbatzaren emanaldia kalean zehar...



INGURUGIROARI BURUZKO IHARDUNALDIEI AMAIERA

Gaur, martxoak 26, mahainguru bat egongo da Monterronen. Gaia “Ehiza: ekintza ekologikoa?” eta bertan parte hartuko dutenek honako hauek izango dira: “Asociación de No Cazadores”eko ordezkaría, Triunfo aldizkariko abokatua eta Gorosti Zientzi Elkarte ordezkaría. Bestalde, ingurugiroari buruzko erakusketa astelehen arte egongo da zabalik. Euskaldiko ingurugiro eskola desberdinen iharduera eta funtzionamendua erakutsi nahi da: ikastetxe desberdinetan erabiltzen den materiala, helburuak, argazkiak... Maila horretan: ur kutsatuen garbitze prozesua, itsasoko animalien erakusketa akuario batean, Udalaizteko maketa, zaborren arazoa... Horretaz gain, egunero diapositiba emanaldia izaten da.

28 IGANDEA

ZINEA

“Acción mutante” (5,7.30,10)

MENDI IRTEERA

Orixol mendira irteera. Goizeko 9etan. Aretxabaletako Parthenoitik. Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatuta.

LUDETEKA SAN ANDRESEN
Sebero Altubeko ludoteka San Andresen. 10.30etatik aurrera. Auzoko alkatetzan.

TRIKITILARI EGUNA

Trikitilari eguna Eskoriatzan. Goizeko 11etan Kalejira, 11.30etan Meza, 1etan Kalejira, 2etan bazkaria eta 5etan trikitilarien jaialdia. Eskoriatzako Herriko Pielotalekuan.

INGURUGIROAREN ERAKUSKETA IKUSTEKO AZKEN EGUNA

Ingurugiroari buruzko erakusketa ikusteko azken eguna. Monterronen.

GIPUZKOAKO ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Arrasateko Eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak Eskola Publikoaren jaira joango dira. Autobusak doan. Irteera: 9etan eskoletatik. Jaia: Lasarteko hipodromoan.

ALOSTORREA ABESBATZAREN ARRASATEN

Bihar, hilak 27, Goikobalu abesbatzarekin egindako elkartrukea medio, Debako Alostorrea abesbatzaren emanaldia izango dugu, San Frantzisko Parrokian. Setan eskainiko duten kontzertuan, Mozart, Guerrero, Villalobos, Cabedo eta Donostia musikoen obrak entzungo dira.

29 ASTELEHENA**ZINEA**

"Acción mutante"(7,9.30)

JOSTAILU TAILERRA

Jostailu tailerra, Arrasateko ikastetxeetako 6. mailakoentzat. Goizeko 9.30etatik aurrera. Sebero Altubeko ludotekan.

30 ASTEARTEA**ZINEA**

Ikusleen eguna (300 PTA)
"Acción mutante"(7,9.30)

ODOL EMATEAK

Odol emateak. Arratsaldeko 4.30etatik 8etara. Arrasateko Anbulategian.

ARKOKO BATZAR OROKORRA

Arrasate Komunikabideak Elkarteko Batzar Orokorra. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

31 ASTEAZKENA**HITZALDIA**

"Emakume migratuen egoera Europan" izeneko hitzaldia. Hizlaria: Hela Daedrigh. Arratsaldeko 7etan. Jai Zale elkartean. Emakumeen Asanblada eta Komite Internazionalistak antolatuta.

ODOL EMATEAK

Odol emateko azken eguna. Arratsaldeko 4.30etatik 9etara. Arrasateko Anbulategian.

1 OSTEGUNA**ZINEA**

"En nombre de Caín"(7,9.30)

KORRIKA ARRASATERA

Korrika Arrasatera iritsiko da. Goizeko 11ak aldera.

GARIZUMAKO OTOITZA

Mankomunitate mailako Garizumako otoitza. Gaurko 9etan. San Juan Bataiatzailearen elizan.

UMEZAINZAKO BATZAR OROKORRA

Umezaintza Haur Eskolako Batzar Orokorra. Arratsaldeko 6etan. San Viatorren.

KORRIKAKO EKINTZAK

Datorren apirilaren 1ean iritsiko da Korrika Arrasatera. Egun horren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dira. Esate baterako, gaur, martxoak 26, bertsolari eta trikitilarien afaria egongo da Alkartu elkartean. Bihar, larunbata, Korrikaren materiala salgai egongo da eta diru bilketa eguna izango da. Horretaz gain, beste hainbat ekintza izango dira: ikastetxe desberdinetako ikasleek muralak egin dituzte, Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldea eta trikitilariak izango dira kalean, umeentzako jolasak, Goikobaluren emanaldia kaleetan zehar... Korrikako azken jaia, aldiz, Bilbon izango da apirilaren 4ean eta bertara joateko autobusak izango dira Arrasatetik. Izena emateko Erdu-AEK euskaltegia jo.

**"ACCION MUTANTE": ALAI ZINEAN**

Alex de la Iglesia zuzendariaren filme hau, beharbada espainiar zineak ezagutu duen pelikularik liluragarriena izango da. Aurrekontu estu batekin, zuzendariaren helburuak bete beteta ikus daitezke, batez ere, dekoratu, makilaia eta bestelako sosisifikazioei esker. Horretaz gain, erakusten digun mundu surrealistaren barruan bere unibertso propioa gordetzen du, beharbada Mel Brooksen obrekin konparazioak egiten erori gabe.

**ARKOKO BATZAR OROKORRA**

Datorren martxoaren 30an, arratsaldeko 7etan eta Monterronen Arrasate Komunikabideak Elkarteko Batzar Orokorra burutuko da. Iazko Batzarraren aktaren onespina, 1992ko deskargua, 92ko diru kontuen berri ematea, 1993ko aurrekontuak, aurrera begirako ildo nagusiak eta Zuzendaritza Batzordearen berriztapena aztertuko dira.


LOURDES ETA SANTIAGORA ERROMESALDIK

Maiatzaren 21, 22, 23 eta 24an Lourdesera egingo den erromesaldian parte hartzeko izenak emateko epea zabalik duzue, Arrasateko edozein Parrokian. San Viator ikastolak, bestalde, Xacobeoan Santiagorako erromesaldia antolatu du. Interesa duten edozein pertsonak har dezake parte. San Viator ikastolara zuzendu zaitezkete.

HASIERAKO RUGBY IKASTAROA

Datorren apirilaren 3an goizeko 9etatik aurrera, hasierako rugby ikastaroa jarriko da martxan. Arrasateko Musakola Kiroldegian izango dira klaseak, igandetan bakarrik eta 14 urtetik gorakoentzat. Prezioa 1.000 PTAkoa Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuetako bazkideentzat eta 1.500 gainontzekoentzat. Izena

emateko epea zabalik duzue, Oñatiko Zubikoa Kiroldegian, Bergarako Udal Kirol Zerbitzuko bulegoetan, Aretxabaletako Kirol Etxean eta Arrasateko Musakolako Kiroldegian.



“(Euskal Herriko eta Akitaniako 321 kooperatibak sinatutako elkarlanerako hitzarmena) borondate sozial baten adierazpena da, eta pertsona, lurralde, elkarte, dimentsio eta ideologia mailako parekotasunei esker izan da posible”.

Alfontso Gorroñoitia otsaileko

Atlantica

“Dirua etxean administratzea izango litzateke ideala, bide batez esanda, herrietako Udaletan, eta ez Donostia hiri kirolzalea egin nahi duten pertsonen eskutan; gainerakook itxaron egin behar”.

Fernando Aguriondo eta beste 93 sinadura 93-3-22

EL DIARIO VASCO

“Bilboko (HIESari buruzko ihardu-naldietan jakitera eman denez, EEBBetan Magic Johnson-ek egindako adierazpenek, antza denez, beldur positiboa eragin dute eta esperientzia honen ondotik, jendea konturatu da hiesa edonork har dezakeela. Gure artean ere Magic Johnsonen bat sortzea beharrezko bihurtuko ote da hiesari normaltasunez begiratzen hasteko?”.

Bego Zubia 93-3-5

egin

“Euskalduna izate hutsak ateen erdiak ireki egiten dizkizu (El Salvadorren), izan ere, ezagutzen duten euskaldun kopuru handia gure herria handia delako dela uste dute eurek, baina El Salvador bezain txikia dela esaten diezunean, harrিতa geratzen dira”.

Bittor Arriaran 93-3-21

egin


Zer da Degabel eta zeintzuk bere helburuak?

Degabel, Deba Garaiko Abeltzainen Elkarte da. Orain 10 urte, albaitari barik geratu zen bailara eta bakoitza bere aldetik hasi ginen arazoa konpontzen. Konturatu ginen bakoitzak berea konpondu beharrean hobe zela elkartzea. Horrela, orain 8 urte sortu genuen Degabel eta dagoneko urte osorako hiru albaitari ditugu; beraz, eguneroko albaitari beharrak %100ean beteta ditugu.

Degabel-en 660 bazkide gaude, Deba Garaiko zortzi herrietakoak eta guztira 9.200 abelburu inguru dauzkagu, 2.600 behi eta 6.600 ardi. Batez ere beterinario zerbitzua eskaintzeaz arduratzen da elkarte, baina teknika berrien aplikazioan ere egiten dugu zerbait. Iaz, esate batera, ardiak garbitzeko makina berri bat probatu genuen elkarte mailan, mendiko putzuak eta errekatxoak zikindu beharrik egon ez dadin.

Igandean urteroko asanblada egingo dugu Gatzagan, urteroko filosofiar jarraituz urtero herri desberdin batean. Funtzionamenduari dagokionez, batzorde bat dugu, lau hilean behin biltzen dena eta beharrezkoa izanez gero, gehiagotan.

Etorkizunari begira, esango nuke gure mendietan beti egongo dela ganadua eta joera okela-behien aldekoa da, esneak ez baitu dirurik ematen. Kalitateko okela ateratzea da erronka, oraingoa maila onekoa bada ere. Baserria, berriz, triste samar dabil, gehienak dira txikiak, gazteek ez dute bertan geraterik nahi, egoera orokorra txarra da..., bizi izateko toki ederra baina lanerako ez hainbeste.



Juan Garitano

Degabel Elkarteko presidentea



URONDO

elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**
- * **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Sute txikia Amaten


Pasa den ostegun goizean, 9ak aldean Amat kooperatibako fundizioan salda lurrera erortzearen ondorioz, ke beltz handi samarra eragin zuen sute txiki bat gertatu zen. Suteak auzoan berehala zabaldu zela, baina kalteak txikiak izan ziren, batez ere instalazio elektrikoetan. Sutearen berri jakin bezain laster Zubillagako suhiltzaileak etorri ziren Amat lantegira eta denbora gutxian sutea itzaltzea lortu zuten, ordurako bertako tresnez baliaturik langileek suta kontrolatu samar bazuten ere.

Bertso-afaria Alkartu Elkartean

Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Iratxe Ibarra bertsolari gazteekin, AEDko gazte taldeak larunbaterako antolatutako bertso-afaria ezin hobeto joan zen. 63 gazte bildu ziren Alkartu Elkartean afari honen inguruan eta bertso bikain ugari entzuteko aukera izan zuten. Antolatzaileek bereziki eskertu nahi izan zuten Jesus Mari Artze eta Roberto Beltran sukaldariaren lana, eta urtero era honetako jairen bat antolatzeko asmoa adierazi zuten.

Ikastola eta udalaren arteko hitzarmena

San Frantzisko Xabier Ikastola eta Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen joan



Langileen martxa asteartean

Transformados Metalicos, Roneo, Uribesalgo eta Ale enpresetako langileek deituta, pasa den asteartean martxa burutu zen Eroski paretik herri erdiraino. Herriko komunikabideek jakinarazi zutenenez, asteartekoa azken hamar urteotan, lan arazoengatik Arrasaten burutu den manifestaldirik handiena izan zen.

den astean. Hitzarmen saioan, Udalaren aldetik Xabier Zubizarreta egon zen; San Frantzisko Xabier Ikastolaren aldetik, berriz, lehendakaria, Joxemi Arregi. Gogora daitekeenez, Eskola publikoaren legea dela eta ez dela, Hitzarmen honen sinadurara iristeko makina bat oztupo gainditu behar izan dute alde biek.

All Nighters-en kontzertua Gaztetxean

Azken orduan sortutako arazo tekniko batzuk medio, All Nighters rock talde gasteiztarraren kontzertuari ezin izan zitzaion, aurrez uste bezala, hasierarik eman gaueko 9etan. Hala eta

gutziz ere, giro bikaineko kontzertua izan zen eta derrigorrez hamabietarako bukatu behar zenez, jendea egarri antzarekin geratu zen; All Nighters taldeko kantariak berak, hain goiz bukatu behar izatea penagarria zela adierazi zuen eta hurrengo batean musika gehiago entzuteko aukera izango zela. Saldutako sarrerak 200 izan ziren, baina kontzertuan jende gehiago izan zen, hasi eta gero, nahi zuten guztientzat ateak zabaldu baitziren.

Besaidekoak Panticosa eta Formigalen

Besaide Mendizale Elkartek antolatuta, San

Jose Egunekeo zubian bi irteera berezi egin ziren, bata Panticosara eta bestea Formigalera. Panticosako irteerara 33 lagun joan ziren, neguan eta oinez mendian nola ibili behar den ikasi asmoz: kranpoien eta pioletaren erabilera, sokaz lotuta nola aurreratu...; Formigaleko ski-pistetara berriz, erremonteak hartu, gora igo eta ahalik eta ondoen jaitsi asmoz, Besaidekoekin 54 lagun joan ziren.

JAIOTZAK


- Lorea Mendizabal Bengoa. Martxoaren 10ean.
- Ariane Jimenez Garrido, 12an.
- Izar Maiztegi Vallés, 16an.

EZKONTZAK

- Jose Inazio Axpe Barrutia & M^a Elena Trojaola Argarate. Martxoaren 20an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Jose Andia Mauleon. Martxoaren 15ean. 78 urte.
- Amparo Romero Anguas, 17an. 76 urte.
- Eugenia Gorrotxategi Egizabal, 17an. 79 urte.
- Antonia Arellano Fernández, 17an. 80 urte.
- Carmen Iriondo Alzola, 18an. 88 urte.
- Laura Paz Gorosabel Ambroy, 18an. 24 urte.
- Manuela Landa Bilbao, 19an. 84 urte.
- Josefa Herrero Solas, 20an. 73 urte.
- Puri Urribetxebarria Altuna, 20an. 54 urte.
- Maria Paz Gorosabel Etxagibel, 20an. 86 urte.
- Jacinta Santano Galeano, 21ean. 81 urte.
- Nicasio Pagalday Isasmendi, 21ean. 83 urte.
- Segunda Iruretagoiena Iturzaeta, 22an. 62 urte.
- Serafin Vitoria Amozarrain, 22an. 74 urte.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118


comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



EDU ARANA *

Kazetari madarikatuok

Orozkora joan ezker, hobe ei da periodismo ikasi zenuela esaten ez baduzu. Hasserre daude, bertan egon zeneko hilketaren inguruan esan eta eskribitu direnez. Gura barik, periodiku titularrerarako aitzakia izan dira eta beraien etxe, kale eta herritarren imajinak telebistan atera dituzte inori ere permisurik eskatu barik. Eta gutzie leporatu dizkiete pasatu zirenak eta hamaika gehiago ere. Guztiz gogaituta omen daude kazetari, telebista euskaldun eta erdaldun, korrespontsari eta prentsa argazkilariekin.

Egunkaria erosi eta irratia entzuteko ohiturari eusten dioten arren, seguru naiz, bertan agertzen diren notiziak beste ikuspuntu batetik begiratzen dituztela orain. Beraien kasuan bezala, periodikuan agertzen diren bestelako berrien gain idatzitakoa eta "benetan" pasa-

tu zenaren arteko diferentzia somatu daitekela dabilzala. Ordura arte, akaso, periodikua edo telebistako informatibotean kontatzen zituzten "errealitateak" diskuti ezinak zitzaizkien eta orain, aldiz, zalantza piztu zaie. Modu garratzez, konprobatu dute, kazetariak esandakoak eta euren ber-

.....

"Kazetarien lana, besteena bezala, zaindu, kalitate kontrola jarri eta behar izan ezker produktua "atzera bota" arazi behar zaiela. Komunikabideak oraindik ere direktzio bakarrek tresnak dira"

tsioaren artean sekulako alde egon daitekeela. Beste diferentzia handi batekin gainera, periodistak zabalduakoa jende askorengana heltzen dela eta euren ez. Konprobatu ahal izan dute egunkari, irratia eta telebistak notiziak behar dituzten entpresak direla periodikuek saldu edo ikusentzuleak edukitzeko.

Orozkokoen ahoan jartzen nabilenak ez nituzke esango pentsatuko ez banu benetan, kazetarien lana, besteena bezala, zaindu, kalitate kontrola jarri eta behar izan ezker produktua "atzera bota" arazi behar zaiela (zaigula). Komunikabideak oraindik ere direktzio bakarrek tresnak dira. Ikusentzuleak ez dauka zer esanik. Entzun, irakur eta ikusi, besterik ezin du egin. Eta, aipatu dudana gertaeraren inguruan bezala, beste hainbatetan, bertsio bakarrek izan dira. Eta bestelako iritziren bat eman guran dabilenak ez du tokirik aurkituko, modurik jakingo edo izen nahikorik edukiko.

* EHUko IRAKASLEA

ARANTZAZU LOIDI

USTEAK USTE

BISITARIAK ETA BISITATUAK

Arrasateko esperientzia esan ohi da. Esperientziak, esango nuke. Kooperatiben fenomeno mundu zabalean da ezaguna eta horixe da fenomenorik fenomenoena Arrasaten. Esperientzia horrek erakartzen ditu hainbat eta hainbat aditu, ikasle, politikari, kanpotar hitz baten. Baina euskararen eta komunikabideen inguruko esperientziak ezagutzera, zentru pilotu bezala Arrasate hartuta beste asko etortzen da, joan zen astean Galestarrak eta aste honetan Diputazioko ordezkariek, urrutira joan barik.

Baina etxean inor ez dela profeta esan zuenak asmatu egin zuen. Gu geu ez gara daukagunaz larregi jabetzen, eta datozen horien berri iristen bazaigu ere, apenak daukagu oinezko "kanpoan miresten bagaituzte, zerbait izan egingo gara" pentsatzeko joera.

Horregatik iruditzen zaizkit hain interesgarri sarri-sarri kanpoko jendeaz antolatzen diren hitzaldiak, komunikabideen bidez zuengana hurbiltzen ahalegintzen garen aurpegi eta testigantzak...

Frantziako talde batekin Institutoko ikasleak egiten ari diren interkanbioa, edo Ahizketik antolatzen direnak. Kanpokaldera zabaltzen gaituzte, baina baita barrukaldera ere. Ez da beti zilborrera begira egotea, baina hori ere inportantea da, inportantea denez.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABAETA



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



Ludoteka, hasieran Gazteluondon, gero Santamainan eta orain San Andresera.

Ludotekak Jostailu Tailerra jarriko martxan

Santamainako larunbatetako ludoteka-zerbitzua bukatu eta gero, bihar hasi eta lau larunbatez ludoteka San Andres auzora eramango da. Santamainako esperientziari buruzko balorazio txiki bat egin dute ludotekako arduradunek eta arrakastatsutzat jo, larunbatero bertara 50-55 neska-mutil hurbildu baitira. Zerbitzua astean zehar eta larunbat arratsaldetan iraunkorra izan beharko litzatekeela jakinarazi dute auzokideek.

Lehen esperientzia horren ondoren, orain ludoteka zerbitzua lau larunbatez, San Andres auzoan izango da, bihar lehen aldiz eta auzo alkatetzako lokalean. Bihar bezala, apirilaren 3an, 17an eta 24ean San Andreseko neska-mutikoez izango dute ludotekaren zerbitzua erabiltzeko aukera.

Jostailu Tailerra

Larunbatetako auzoz-azoko programaz gain, ludotekak beste ekimen bat jarriko du martxan martxoaren 29tik aurrera, Jostailu

Tailerra, Arrasateko Ikastetxeetako 6. mailako ikasleentzat. Programa, goizetan landuko da, 9.30etatik 12etara eta bi alderdi izango ditu, bata teorikoa eta bestea praktikoa. Alde teorikoa lantzeko, *Egia ote?* jolasa erabiliko da, jostailuen analisi konparatiboak egin eta horren bidez, jostailuen kontsumismoan kritikoagoak izaten laguntzeko. Jostailu Tailerraren alde praktikoa, ludotekariak jostailu-klinika irekiko dute, umeak jostailu zaharrak sendatu eta imaginazioa erabiliz berriak sortzen ahalegin daitezten. Praktika honen bidez, gaur egun merkatuan agertzen diren jostailuekin, irudimenari oso toki txikia eskaintzen zaiola ikustaraztea da, hortaz pentsatzea eragin eta ondorioz erreakzioak sortaraztea.

Jostailu Tailerrean parte hartzeko, ikastetxe bakoitzak egutegi zehatza izango du eta gainerantzean, arratsaldetan, betiko ordutegiarekin eta betiko dinamikaz jarraituko du Ludotekak.

Kiroldegiko karnetak prest

Musakolako Kiroldegira sartzeko txartel magnetikoak dagoeneko prest daude eta sistema osotasunean martxan jarri ahal izateko, komenigarria da txartela jaso ez dutenek lehen bait lehen jasotzea. Horretarako, ordainagiria hartuta, kiroldegiko bulegoetatik pasatzea besterik ez dago.

Diputazioko ordezkariak ARKO bisitatu

Garbiñe Egibar eta Francisco Javier Lopez Landatxe Diputazioko kultura saileko ordezkariak ARKO bisitatzen izan ziren asteartean. Bisitaren helburua, ARKO zuzenetik ezagutzea. Mikel Irizar, ARKOk lehendakariak bisita ondoren adierazi zuenez, Diputazioko ordezkariak ikusitakoagatik inpresio ona eraman zuten. Aurrera begira, Udala-Diputazioa-Arko harremanei garrantzia berezia eman zien Mikel Irizarrek, ARKOk egin nahi dituen inbertsioak kontuan hartuta elkarlan hori inportantea baita. Antza denez, Diputazioarentzat interesgarria izango litzateke ARKO laborategi baten antzeko zerbitzu izatea, hemen egiten dena gero beste herrietan eta euskara mundurako baliogarri izan dadin.

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA SA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Deba ibaian jarriko de Aforalekuak uraren zenbatekoak eta kalitatea neurtuko ditu.

Aforaleku bat eraikiko Deba ibaian, San Prudentzio parean

Ur Hornidura eta Saneamendurako Plan Orokorren barruan, Deba ibaian, San Prudentzio aldean, aforaleku bat eraikitzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak; aforalekuaren helburua, Deba ibaiako uraren kalitatea eta zenbatekoak aztertzea izango da. Aforalekuaren eraikitze lanek, guztira 52 milioitako aurrekontua izango dute.

Proiektua Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak nahi duen tokian aurrera eramateko, lursail partikularrak erosi beharko dira. Horretarako, lursaileen jabeekin akordioetara iristeko

ahaleginak egin beharko dira eta akordiorik lortzen ez den kasuetarako, desjabetza espedienteak ireki beharko dira, obren onura publikoa ikusten baita. Lursailen jabeak konturatu daitezten, proiektua eta derrigorrez hartu beharreko ondasunen erlazio zehatza eta banakakoa egingo da jendaurrean.

Gipuzkoako Ur Hornidura eta Saneamendurako Plan Orokorren helburua herrialdeari azpiegitura hidrologikoa ematea da, lur gaineko ur baliabideak ahalik eta ondoen gestionatzeko oinarritzko datuak lortzea, Aforalekuen bidez noski.

••••• • **Amaia** • **antzokirako** • **eserleku berriak**

Udalak bere azken Gobernu Batzordean erabaki zuenez, Amaia antzokiko behekalderako eserleku berriak erosiko ditu, 472 ezarleku berri hain zuzen ere. Ezarleku berriengatik Udalak 9 milioi ordaindu beharko ditu, beraz, 19.000 PTA inguru eserleku bakoitzeko.

Udalak kilometrorik ez Korrikan

Gobernu Batzordeak, ezezkoa eman zion *Korrikako* kilometro baten erosketari, oraingoz aurrekontuak onartu barik daudenez, erabateko adostasuna eskatzen zelako. EAJ-PNV izan ezik, Gobernu Batzordeko beste alderdiek kilometroa erostearen alde agertu ziren. Adostasunik ez, baina gainontzeko ekintzetarako laguntza ematea onartu zen. Udal bezala ez, baina EA, EuE eta HBko zinegotziek kilometro bi erosiko dituzte.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



LKS-k aurkeztu du plana aurrera eramateko borradorea.

Garapenerako analisia gaur egungo egoeran oinarritu behar

LKSk egindako borradorearen arabera, Udalerriaren garapen industrialerako analisi eta perspektibaren azterlana, gaur egungo egoeraren analisian oinarritu beharko litza-teke, helburua lantegien egitura kompetitiboa eta iharduera berriak finkatzeko eta azken finean biztanlegoaren bizi-maila hobetzeko.

Helburu jakin horri begira, aurkeztutako borradorean, hiru lan-talde sortzea proposatzen dio LKSk Udalari: sare industrialaren berrindarketari zuzenduta bata, bigarrena zerbitzu arloari begira eta azkena azpiegituren arazoak aztertzeakoa, hirurak elkarlanean

eta enplegua sortzeko premiari erantzun nahiean. Aipatutako lan-talde bakoitza, operatibotasunaren izenean, zortzi-hamar pertsonak osatuko lukete eta garatu beharreko ekintzak honako hauek izango liriateke:

1) Egungo egoeraren diagnosis, ekonomiaren garapena oztzatzen duten arazoak ezagutzeko. 2) Kanpoko faktoreen azterketa, ekonomiaren garapenean eragina duten neurrian. 3) Gizartean eragin handiena duten ekintza-sailen hautaketa eta lehentasunak ezartzea. 4) Enplegua sor dezaketen iharduera planentzako proposamenak.

Eskola Comett proiektuan

Eskola Politeknikoak beste Comett proiektu batean hartuko du parte, bi urtez mekanizatua eta korteen teknologiak aztertzeke. Eskolaz aparte, proiektu berean Frantziako bi erakundek, Finlandiako batek eta Portugaleko beste bi erakundek hartuko dute parte.

Roneon 60 langile soberan

"Cinco días" ekonomia egunkariak jakitera eman zenez, UCEM Korporazioak Roneon berregituraketa egiteko erabakia hartu du; berregituraketa berrian, gaur egun Roneon lanean ari diren 200 langileetatik 60 soberan egongo liriateke.

Pisten alokairua

Musakolako kiroldegiko frontoiak, futbol kantxa edo tenis pistak alokatu eta Iturripeko kiroldegia hartzeko interesa duten guztientzat, bihar larunbata Musakolako bulegoan, goizeko 11etatik aurrera izango da bilera.

Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.



"Bezeroaren telefonoa"

901- 20 20 20

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.


IBERDROLA

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



Asturiasen "Mondragon" izeneko aldizkaria atera berri dute. Dirudienez, Paneroren obra hain gustokoa dute, aldizkariari ere idazlea bizi den herriaren izen bera jarri diote: "Mondragon".



Garizuman sartuta gaudela eta, San Juan Bataiatzailearen Parrokian "Bidean" izeneko orrialdea atera dute. Hirugarren alearen azala duzue hau eta Arrasateko etxe guztietan banatuko da. Garizumaren esanaldia zabaldu nahi da eta, bere zentzua ezagutzen ez dituztenei zuzendirik dago batez ere.



Hilario Arresek eta Juana Letonak pasa den martxoaren 14an ospatu zituzten urrezko eztaiak. Egun berezi hori ospatzeko, Arantzazun meza eta ondoren Urtiagain jatetxean senideen arteko bazkaria euki zuten. Zorionak eta urte askotarako izan dadila!



Jose Mari Barrutiabengoa eta Sonia Ortubay pasa den otsailaren 13an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Kenian egon ondoren, seguruenik bueltan izango ditugu Arrasaten. Zorionak!

Udal Euskaltegiko 57 ikasle eta bi irakasle ETBko Gezurra Nagusiren grabazioan egon ziren asteartean. Hemendik bi astetara botako dute programa. Ea, bada, publikoren artean ezagunak topatzen dituzuen!

Ikusi duzu Korrikako kartel ofiziala? Bada, Arrasate eta inguruko herrietako jendez beteta dago. Kalean ikusten duzunean, fijatu zaitetz goiko hileran daudenetan, ea ezagutzen dituzun...

UGARTE
Industri hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Onduline TXOMIN HERIZ
eraikuntzarako materialak
URALITA
Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

IZEN PROPIOAK



Pasa den asteburuan Arrasatera heldu ziren Frantziako Parentis en Born herriko 20 ikasleak eta elkartrukean parte hartuko duten beste 20 arrasatear dituzue argazkikoak. Eguraldi eskaxa izan

dute baina, hala ere, hainbat irteera egin dute. Igandean ikasle guztiak elkarreko joango dira Frantziara. Ea Frantziara doazenean ondo pasatu eta frantsesa praktikatzen duten!

Yugoslavia ohian gertatutako bortxaketan aurka bazaude eta nolabait hori azaldu nahi baduzu, hemen duzu zure aukera. Udaleko Gazte Zerbitzuko bulegoan txartel hauek zure esku dituzu. Bertan, salatu nahi duzuna idatz dezakezu. Biltzen diren guztiak Kanpo Arazoetako Ministeritzara bidaliko dira.



● **Jose Maria Sainz de Vicuña**, LKSko marketing saileko zuzendari, Zuzendaritzaren eta estrategiaren aholkulari izendatu berri dute. Orain arte, Publics-ko marketing eta kontuen zuzendaria izan da.

● **Olatz Muruamendiaraz**, Mankomunitatean, Ibai Artek bultzatu eta merkatariei zuzenduta zabaldu berria den bulegoko ardura-dun dugu. Aholkulari tekniko komertziala da eta Eusko Jaurlaritzak emandako beka bati esker egingo du lan bulego honetan.

● **Jose Ramon Petreñas, Julio Dominguez, Jaime Garcia eta Jose Miguel Mendikute** arrasatearrak, igandean Zornotzan burutuko den Krosseko Munduko txapelketako epaile ofizialak izango dira. Atletismoko epaile nazionalak dira eta aurretik ere beste hainbat frogetan egon dira epaimahian.

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
A
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



ERRASTI KRISTALDEGIA


**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25




**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



**LORAMENDI
KIROLAK**

HELDU DA UDABERRIA!



Argazkigintza ikastaroa

- Hastapen maila •
- Maiatzaren 3tik ekainaren 3ra •
- Astelehen eta asteazkenetan •
- 7etatik 9etara •
- Matrikula: 1.000 PTA •
- Plaza mugatuak •
- Informazioa: Gazte Zerbitzuan. Tfnoa: 77 00 65 •





Karapaixoa, udaberriko opila

Kepa Oliden

Karapaixoa hain geurea duguna, udaberriko eman-kortasun erritu zaharren aztarna da. Duela 2.000 urteko Erroman nahiz egungo Egipton, garia -beraz, ogia- eta arrautzak erabili ohi dira emankortasuna adierazteko.

Urtero bezala eta udaberriaren iragarle, agertu da okindegi eta gozotegietan karapaixoa deritzan ogi hiruki eta arrautzaduna. Garai batean, ogia etxean egin beharra zegoenean, karapaixoak presentzia handia izan omen zuen gure artean. Ogia egitearen egunerokotasunari ja-

rraituz, Garizuma garaian ogi berezi bat egiteak, ez omen zien buruhauste handirik sortzen gure baserritarrei. Beraz, puntualki heltzen zitzairen gazteei, senar edo emaztegaiei, apaizei, etab. urteroko oparizko karapaixoa.


Baserria izan da Euskal Herrian aintzinako ohitura

zaharren santutegi eta gordelekua, eta baserrietan ogia egiteari utzi ziotenetik, karapaixoak sekulako beherakada izan du. Bizimodu moderno eta kaletarraren etorrerarekin batera, galtzen joan da herri askotan erritu hau. Zorionez, Arrasateko herriak jakin izan du, agian inguruko

ONANDIA

- Gozotegia • Degustazioa •
 - Izozkitegia •
- KARAPAIXO EDERRAK!**

Iturriotz, 11 Tfnoa: 79 12 31 ARRASATE




Izozkitegi S. L.

**PROBA ITZAZU
GURE
KARAPAIXOAK!!**

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 81 68 ARRASATE

askok baino hobeto, aintzina-ko zeremonia hau gorde-tzen, eta nahiz eta aipatutako bizimodu kaletarrak kara-paixoarengan bere eragina izan duen, poztekoa da horrelako usadio zaharra mantendu izana. Horrela, kara-paixoak ezarpen nabarmena du Deba ibaian gora, Arrasate-tik Gatzagaraino. Aldiz, ibaian behera joz gero, bere presentzia gutxiagotuz doa. Oñati eta Bergaran etxe batzutan gorde bada ere, hortik behera ez da ia ezagutzen. Aipatzekoak dira Arabako herrialdean Aramaio eta Bizkaian Elorrio eta eskualdea. Leku hoietan tradizio bera mantentzen da, baina ogi erritual horri Mokotza deitzen diote.



Ohitura zaharra izanda, gaur egun ere jendeak gustora hartzen du kara-paixoa.

KARAPAIXOA GAUR EGUN

Gizaldietan zehar, ohitura hau esanahi eta eduki eraldaketa askotara egokituz joan da. Gaur egun Arrasaten eta inguru hurbilenetan ezagutzen dugun kara-paixoa, hauxe litzateke hitz gutxitan esateko: Garizuma garaian aita-pontekoek euren besoetakoei ezkondu artean urtero oparitzen dieten ogi hiruki eta 3 arraultzaduna. Ez oso aspalditik, eta tradizioaren ortodoxiatik desbideratuz, kara-paixoari osagarri berriak ere gehitu zaizkio, txorizoa, urdaiazpikoa edo sagarra, adibidez. Adineko jendearen esanetan, kara-paixoak ez omen zuen izaten horrelakorik lehen. Pentsa daiteke gainera, txorizoa eta urdaiazpikoa ez direla Garizuma kristaua-

ren bigilia kontzeptuarekin oso bat datozen jakiak. Horretaz gain, kara-paixoak gozogintzako bertsioak ere eza-gutu ditu azken urteotan. Gozotegiek badaramatzate urte batzuk bizkotxo eta arraultza txokolatezkodun kara-paixoak egiten. Ogitik pastelera emandako eboluzioa, gaur egungo gizartearen gustu eta bizimoduaren aurrerapenaren islada baino ez da, eta ogi zuria garai batean hain estimatua, atzera geratzen ari da egungo gizartearen preferentzia gastronomikoen zerrendan. San Blas eta San Markos opilak, jadanik pastelezko opilak dira soilik, nahiz eta jatorriz ogizkoak ziren. Gure kara-paixoaren eginkizunean, ogiak dauka —oraindik eta oraingoz— protagonismo nabariena.

JATORRIA ETA ESANAHIA

Batzuen ustetan, kara-paixo hitza erdarazko "cara de payaso" berbaren euskarapena da. Nolanahi ere, kara-paixo hemengo izena baldin bada ere, ogi erritual honen jatorria ez da inondik inora arrasatearra, ezta euskalduna ere. Mediterraneoan eta erromatar kulturadun geografia guztian aurkitu ohi da ogi hau, eta garai batean izandako agerrera mendetan zehar galtzen joan ondoren, leku puntual eta konkretu batzuetan soilik iraun du gaur arte; Arrasaten adibidez. Esanahiari dagokionez, desberdin du beharra dago bere jatorrizko esanahia eta gaur ematen zaionaren artean. Gaur egun, kara-paixoaren oparia aita-ponteko eta besoetakoaren

O
gi erritual honen jatorria ez da inondik inora arrasatearra, ezta euskalduna ere.

MURUAMENDIARAZ
Obradorea / Gozotegia
Zeure gustoko kara-paixoak!
Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Oñati

arteko erlazioarekin identifikatzen da bakarrik. Bere jatorrizko testuingurutik desplazatuta, karapaixoaren esanahia nolabaiteko "errenta" sinbolikoarena bilakatu da. "Errenta" horren bitartez, aitapontekoak bere besoetakoarekiko hartuta duen erantzukizunari aurre egiten dio. Horrela, aitapontekoak urtero birbaiezen du bere jarrera ona konpromezu horrekiko.

HISTORIARI BEGIRATUZ

José Carlos Capel iker-tzaile eta kritiko gastronomikoak, jatorri paleokristaua ematen dio erritu honi. Berak eginiko Espainiako ogi errituaren ikerketaren arabera, aintzinako nekazal-kultuetan daude bere oinarriak. Nekazal-kultu hauek, kristau liturgi-ziklora egokituta, mende baldeko egutegiari erantsi zaizkio. Bere disposizio kronologikoak, erromatar egutegi ludiko eta fastu protohistoriko zaharragoetatik ateratako trasfondoak adierazten ditu. Capelek gogoratzen digun bezala, "erromanizazio prozesua erabat irekia izan ohi zen menperaturiko herrietako kultu eta sineskeriengan, ondorioz, jainkotasun pagano eta bertakoen erritu zaharrak nahasiz eta erritu berrien garapena bultzatuz". Kultura mediterraneanreko kultu pagano garrantzitsuenen artean "equinoccio" edo udaberriaren festa aipatu beharra dago. Ama Lurraren ohorez burutzen ziren zeremoniek, bi elementu zituzten oinarritzat: ogia, gari-uztaren ordezkari,



Karapaixoa garizuma bezala udaberri hasierako errittoa da.

emankortasun telurikoaren sinbolo, eta arraultza. Horrek, biziaren hazia eta prokreazio-materia adierazten du, udaberria eta ziklo biologiko berriaren haserari lotuta. Karapaixoaren ohitura udaberriaren ohorezko errituen artean koka dezakete, dudarik gabe. Capelek dioenez, arraultzadun ogi eta opilak jan edo oparitzeak -maiteminduen artean, aitapontekoek besoetakoei, eliztarrek apaizei-sakonki sustraituak daude mendebaldean. Gaur egun aitapontekoak badira ere ohitu-

rari jarraitzen diotenak, adinekoen memorian dago oraindik karapaixoa ezkongaien artean oparitzeko ohitura.

ERROMA ETA ARABIA

"Munda" deitzen zitzaaien Erroma Zaharrean herritarrek Ceres nekazaritzaren jainkosaren ohorez eskaintzen zituzten fruitu lehor eta arraultzez betetako otarrei. "Antzinako arraultza eta fruitu lehorrezko oparietan oinarritzen dira, seguraski, gari-irinezko ogi eta opil arraultzadunak" Capelen hitzetan. Gaur egun

"mona" izenarekin ezagutzen da Catalunyan aitapontekoek euren besoetakoei pazko egunez oparitzen dieten opil arraultzaduna. Castilla, Andaluzia eta Aragoi aldean, "hornazo" deritzaio bere baliokideari. Asturiasen berriz, "bollu preñau" edo opil haurduna. "Izenaren etimologia berak adierazten du umeketaren kontzeptua". Euskal Herrian, karapaixoa opil edo pipar-opilen kategoria generikoan koka daiteke.

KRISTAUTASUNAREN ETORRERA

Kristautasunaren etorrera eta ezarpenak, besteak beste, ogi eta erritu pagano hauekin topo egin zuen eta, adibidez, San Juan Suak edo Finisterre/Santiagorako peregrinazioarekin bezala, erritu horiei edukin kristaua emanez bereganatu zituen. Capelen hitzetan "ondorengo erlijio-tasunak ez du ezabatu giza-bizitzako transitu-erritu eta efemeride paganoekin loturiko ogien sinbolismo eta aztarna". Ez da batere zaila gaur egungo folkloean "herejia aztarna" garbidun kutsuak aurkitzea, kristautasunaz asimilatu eta santifikatuak. Horren froga, "udaberriko opilen karga mitologikoa ezabatzeko, kristautasunak gurutzearen imajinak gehitu dizkio (karapaixoari) arraultza egosien euskarri gisa". Zentzu honetan, garbi dago karapaixoak Garizumarekin duen erlazioa kointzidentzia kronologikoa baino ez dela, biak udaberri haseran betetzen diren errituak dira eta.

BOLINTXO
OKINDEGIA ETA
GOZOTEGIA

Arrasate: 79 63 42
 Bergara: 76 16 93

AKELARRE
 Gozotegia
KARAPAIXORIK ONENAK!
 Zarugalde, 54 Tfnoa: 77 00 71ARRASATE



Jende askoren topagune izaten da Besaide edozein asteburutan.

Besaide egokitze azken urratsak

Federakuntzak eta Besaide Mendizale Elkartek inguruetako lur gehiena erosi ondoren, Besaide mendiak orain urte batzuetako itxura gorde ahal izango du. Pinudiak botata, Udalaiz, Anboto, Muru, Nafarroako San Donato... eta beste hainbat mendi bistan izango dira Besaide-iraigoz gero.

Besaide egokitze premia edo ideia 1980. urtean sortu zen, Besaideren 25. urteurreneko ospakizunen barruan, pinuz inguratuta burutu ziren ospakizunetan. Ideiari hainbat buelta eman

ondoren, 1989. urtean onartu zen Besaideko proiektua: iturria txukundu, Besaide inguruak garbitu eta eskultura jartzea, baina horretarako premiazkoa zen inguruko lurren jabegoa eskuratzeari. Jabegoa eskuratzeko tramiteak Besaide Mendizale Elkartek eta Euskadiko Mendi-Federakuntzak egin dituzte, baina ez dute jabe izaterik nahi eta eskriturak, lekuan lekuko, Diputazioak eta Udalen artean egin dira. Besaiden Arabari zegozkion lur guztiak erositadaude, Bizkaiari zegozkientatik, berriz, franja

txiki bat besterik ez da falta eta zailtasun bakarrak Gipuzkoako lurrekin daude. Gipuzkoa partean dauden lurak jabe bakar batenak dira eta ez federakuntzak eta ezta Besaide Mendizale Elkartek ere, ez dute jabeaz akordiorik lortu eta ondorioz pinudiak hor daude oraindik.

Edozein modutan, akordiorik lortzen ez bada ere, normalena pinudi horiek laster botatzea izango litzaiteke, bestela alperrik galduko dira eta. Beste kasu askotan bezala, denborak izango du azken hitza.

LABURRAK

Txirrindulariek garaipenik ez

Dorletako Ama Txirrindulari taldeko partaideek ez zuten garaipenik lortu joan den asteburuko lasterketan.

Lehen urteko kadeteak, Eibarren izan ziren 55 kilometrotako lasterketan. 82 txirrindulari irteeran eta 60 helmugan; lehen arrasatearra Jose Sedano, laugarren. Mikel Roldán lasterketako protagonista bihurtu zen ihesaldi luzea burutu ondoren. Bigarren urteko kadeteak Zarautzen izan zuten lasterketa, 140 txirrindulari irten eta 69 iritsi; Frutos, Alberdi, Uriarte eta San Miguel lehen tropelean sartu ziren. Jubenilek 77 kilometroko lasterketa izan zuten Azpeitian, baina gauza aipagarriarik egin barik.

Arbitrorik ez eta partidua suspenditu

Ostiralgoizean Arrasate Kirolak eta CAF-en artean jokatu behar zen eskubalo partidua jokatu barik geratu zen azkenean, arbitrorik ez baitzen agertu; larunbat eta igandean, berriz, agertu ziren. Arrasatera arbitroa agertzen ez den boskarren aldia da ostiralekoa, eta Arrasate Eskubalo taldeko arduradunek dagoeneko ez zekiten errua nori leporatu, arbitroei euren edo Federakuntzari. Edozein modutan, badirudi arbitroek ez dutela Arrasatera etortzeko aparteko gogorik.

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecentoesklusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

PENALTIAK

● Eskubaloi arbitroena gehiegi da, dagoeneko huts egin dute hemen jokatu behar ziren bost partidutara, azkena joan den ostiralean. Federakuntzak ostiral hone-tan jokatzeko agindua eman du, baina beasain-darrek, berriz etorri eta arbitrorik ez aurkitzeko gogorik ez zutela adiera-zi eta gainera galdera hor utzi zuten "eta joaten ez bagara, zer?".

● Zaldibarkoa ezezik, beste futbito txapelke-ta bat antolatu da, Uribe-Auzoko Gazteena. 12 tal-derentzat pentsatuta ze-goen, plazak beteta dau-de eta taldeei abixatuko zaie txapelketa noiz ha-siko den. Beraz, lasai egon, abixatuko dute eta!




Beloki-Armendariz bikoteak, Astore kirol-jantzi lantegia bisitatu zuen

Beloki-Armendariz pilotari bikoteak urrezko domina lortu zuen Bartzelonako Olinpiadatan. Harrez gero, Armendarizen berri handirik ez da izan; Belokirenak, bai, ordea: bigarren mailako eskuz binakako txapelketa irabazi zuen, 4 t'erdiko txapelketan parte hartu zuen, baita eskuz binakako txapelketan ere..., eta azkenik Asegarce bere fitxaketa sonatua, milioi batzuren truke noski. Beloki eta Armendariz bikotea Astore lantegia ikusten izan da asteen, hemendik aurrera, beste askok bezala, Astoren egindako jantziak jantziko baitituzte.

Nola irtengo da munduko kros txapelketa

Espainiako Txapelke-ta ikusi ondoren, akatsak konpondu egin dituzte eta ondo irtengo da. Nire us-tez, Fita Bayesak irabaz dezake, nik Fizek irabaz-tea nahiago badut ere.



JOSE RAMON PETREÑAS, nazioarteko epaile arrasatearra

EMAITZAK

Saskibaloia

Seniorrak: Gizonezkoak, Arrasate 105 - Atletico San Sebastian 100
Emakumezkoak, Jarrilleros 57 - Arrasate 55
Juniorrak: Arrasate 84 - Juven 72
Kadeteak: Gizonezkoak, Arrasate C 39 - Loiola A 104, Mundaiz Atco. 68 - Arrasate B 66, Arrasate A 99 - Loiber 34, Arrasate A 70 - BKL CAF 65
Emakumezkoak: Arrasate B 36 - Arrasate A 49

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Gizonezkoak, Arrasate - Juven, larunbatean 6etan Musakolan.
Emakumezkoak, Arrasate - Bergara, larunbatean 8etan Musakolan.
Juniorrak: Arrasate - Erka Rentería, igandean 12etan Musakolan.
Jubenilak: Gizonezkoak, Zahor - Arrasate A, igandean 10etan Ohñatin; Arrasate B - Andraitz, larunbatean 4etan Musakolan.
Emakumezkoak, Arrasate A - Juven B, igandean 12etan Musakolan.
Kadeteak: Gizonezkoak, Euskalduna - Arrasate C, larunbatean 4etan Andoainin; Arrasate B - Aldapeta, larunbatean 12etan Musakolan.
Emakumezkoak, Arrasate A - Laskorain, igandean 12etan San Viatorren; Zahor - Arrasate B, larunbatean 11etan Ohñatin.

Eskubaloia

Seniorrak: Arrasate Kirolak - CAF Beasain (Suspenditua)
Jubenilak: Arrasate Kirolak 6 - Arrate 23
Kadeteak: CAF Beasain 14 - Arrasate Kirolak 15
Arrasate Kirolak 14 - Hernani 13

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Arrasate Kirolak - Urola, Iturripen igandean 12etan.
Juniorrak: Pulpo - Arrasate Kirolak, larunbatean Zumaiain.
Jubenilak: Urola - Arrasate Kirolak, igandean Zumarragan.
Kadeteak: Leitzarain - Arrasate Kirolak, igandean Andoainin.

Gimnasia Erritmikoa

Larunbatean, Iturripen arratsaldeko 4.30etan Alebin mailako Gi-puzkoako Ikastetxeen arteko kanporaketak, 28 partaide, bi arrasatearrak.

Pilota

Deba Arroa Txapelketa:
Infantilak: Arrasate 18 - Aretxabaleta 10
Jubenilak: Arrasate 22 - Aretxabaleta 8
Nagusiak: Arrasate 19 - Aretxabaleta 22

Rugbya

Kadeteak: Arrasate - Eibar, larunbatean 3.30etan Garagartzan.
Seniorrak: Arrasate - Algorta, larunbatean 4.30etan Garagartzan.
Jubenilak: Arrasate - Irun, igandean 11.30etan Garagartzan.
Emakumezkoak: Hiru talderen arteko txapelketa Gasteizen, la-runbatean Gamarran 4etatik aurrera, taldeak Zaragoza, Gaztedi eta Arrasate.

Futbola

3. maila: Mondra 2 - Tolosa 0 ; Zalla 1 - Mondra 1
Emakumezkoak: Mondra 3 - Bortziarik 0
Preferentea: Alipendi 3 - San Andres 3
Ohorezko maila: Mondra 1 - Lazkao 0
Jubenilak, lehen maila: Corazonistas 3 - San Andres 1; Abetxuko 3 - San Andres 2.
Jubenilak, bigarren maila: Arrasate 3 - Zestoa 4
Kadeteak, bigarren maila: Arrasate 1 - Urola 2 ; Arrasate 6 - Urki 1.
Haurrak: Eibartarrak 2 - Arrasate 13

Hurrengo partiduak

3. maila: Aurrera - Mondra, igandea 5etan Ondarruan.
Preferentea: San Andres - Alaves, larunbatean Atxabalpen 4.45etan.
Emakumezkoak: Mondra - Urretxu, igandean Atxabalpen 11etan.
Ohorezko maila: Santo Tomas Lizeoa - Mondra, larunbatean 5.30etan Donostian.
Jubenilak, lehen maila: San Andres - Vitoria, igandean 4.30etan Atxabalpen.
Jubenilak, bigarren maila: Zumaiako - Arrasate, igandean 4.45etan Zumaiain.
Kadeteak: Arrasate - Aloña, larunbatean 12etan Atxabalpen.
Haurrak: Añorga - Arrasate, larunbatean 10.30etan Añorgan.
Arrasate - Uda, larunbatean 10.30etan Atxabalpen.

Zarraoa

ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA




MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ
Tfnoa: (945) 23 04 48

V. O VERSION ORIGINAL

Alava Jenerala, 16 GASTEIZ
Tfnoa: (945) 13 33 39



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...


Zer egin hondakinekin?

Gizakiok, eguneroko ekintzak direla eta, eratzen ditugun hondakinen kopurua beldurgarria bihurtu da. Gaur egun, biztalde bakoitzak egunero ia kilo bat zabor egiten du. Hondakin hauek tratatzeko ezagutzen diren metodoak honako hauek dira:

1— Isurtegi kontrolatua.

Egunero jasotako hondakinak esparru zabal batean sakabana-tu eta ondo trinkotu ondoren, harea eta harri mehekin estaltzen da, bere gainean ondorengo hondakin-geruzak pilatuko direlarik. Isurtegi hauek ez dute konplikazio handirik edonon eraikitzeke, eta etxeetako nahiz obretako hondakinak hartzeko balio dute. Hondakinetan nahasturiko sustantziek usteltzerakoan libratzen dituzten gaiak (lixibiatuak) dira metodo honek dituen pega handienak. Hona hemen honen lekuko datu batzuk: isurtegi batek segunduko libratzen duen lixibiatu kopurua 0'2 litrokoa da; bestalde, martxan jarri eta hogeitertara gas toxikoak airera isurtzen jarraituko du isurtegiak.

2— Errausketa. Tratamendu hau oso erreza da. Hondakinak jaso, eta labe batean erre egiten dira, errauts bihurtuz. Azken hauek, labe ondoan kokatzen den isurtegi batean botatzen direlarik, metalezko apurak banatu eta gero. Metodo aproposa da egu-



nero sortzen ditugun milaka tona hondakin guztiak kilo eskax batzutan bihurtzeko. Hala ere, metodo honek sortzen dizkigu arazo larrienak: alde batetik, erretzerakoan, airera isurtzen diren gasak oso arriskutsuak dira (dioxinak, furanoak...), bestetik, errautsak ere oso toxikoak dira; energia kopurua izugarria da.

3— Birziklaia, berrerabile-ra, bilketa hautakorra eta kontsumoaren gutxitzeak bultzatzen dituen tratamendua. Ingurugiro arloan mugitzen diren alternatiba, eta gauregun, lurralde batzuetan aplikatzen den tratamendua dugu honako hau. Kontsumoa gutxitzeko jokaera bultzatu, zabor poltsatan nahasturik

botatzen ditugun materialeen bilketa hautakorra aplikatu, hauetariko hainbat birziklatuz (gai organikoak, beira, papera...) eta beste hainbat bererabili (altzariak, arropa, liburuak...); hauetxek dira metodo honen ezaugarri nagusiak. Ohitura eta balore batzuen aldaketaren beharra izan daiteke metodo honen oztopo bakarra.

Gure bailara aztertzen badugu, egoera nahiko larria dela esan dezakegu. Oraindik ere, 40 isurtegi kontrolgabeko ditugu, hauetariko batzuk sustantzia oso arriskutsuak dituztelarik. Egoera hau aldatzeko ez da gauza handirik salaketa mordoxka agertu arren. Epeleko isurtegiarekin egoera hau aldatuko zela entzun arren, ez da aldateta handirik ikusten.

Inongo zalazarrik gabe, hiru-garren metodoa da egokiena, arrazoi hauegatik, batez ere:

- Birziklaia, ererkurtso naturalen kontsumo minimoa posibilitatzen duelako.

- Gu bezala bizi izateko aukerarik ez dutenekiko elkartasuna adierazten duelako.

- Hondakinen tratamenduek sortzen dituzten arazoak elimintzen dituelako.

- Azkoz ere merkeago eta arrazionalagoa delako, ekonomikoki nahiz sozialki.

MIKEL OLABE

Etxeko zaborrak gutxitzeko aholku batzuk

Inork ez du ukatzen hondakinen arazoa gero eta larriagoa dela. Administrazio gehienak medikuen papera jokatzen du, gaitzak tratatzen dituelarik. Hala ere, gaitza ekiditzeko jokaera bultzatu beharra dago, gizarteko arlo guztietan. Honek, alde batetik, esfortzu handia eskatuko digu, baina, bestetik, guztiok lortuko ditugun etekinak neurtezinak izango dira. Horregatik, gustatuko litzaidake ondoren proposatzen dizkizuedan jokaera hauetaz pentsatu eta, egokiak iruditzen bazaizki-

zue, aurrera eramatea.

1— Erosketak egin aurretik, ondo pentsatu erosi behar dituzun gauzak, ahal duzun neurrian kantitateak kalkulatu. Horrela, diru dexente aurreratu eta frigorifikoan hondar gutxi izango duzu.

2— Erosketak erabiltzeko telazko poltsak erosi, denda gehienetan eskeintzen dizkizuten plastikozkoak errefuxatu.

3— Haragia eta arraina erostera zozazenean, hauentzako dauden ontzi bereziak erabili ("taper"ak), hobeto kontserbatuko

da bidean eta paper nahiz plastiko gutxiago erabiliko duzu.

4— Ontzietan saltzen diren produktuak, beirazkoetan gordeta daudenak erosi, askoz ere garbiagoak dira, eta kontenedoretara eramanda erziklatuko dituzu.

5— Behin bakarrik erabiltzeko tresnarik ez erosi, produktu horiek beste era askotan ere saltzen baitira (bizarra mozteko tresna, paperezko zapiak, etab...)

XABIER ARREGI

Sutearen gorabeherak


Aurreko batean esan genuen bezala, 1448ko erreketak famatua gertatu zenean, Mondragoe bandoetan banaturik zegoen. Guraiatarrak ziren nagusi gure herrian, Oñaztarren alde, eta Baiñeztarren alde, beste aldetik, ganboarren alde borrokan egiten zutenak. XIV. mendearan amaieran enfrontamendu lantzak izan ziren Oñati eta Leintz bailararen artean, muga, mugarri eta ganadu kontuak zirela medio. Baina borroka guzti horiek Arrasateko erreketarekin bukatu ziren, 1448ko ekainaren 23an. Fetxa horri buruz ere badira zalantzak, izan ere hilabete berandua, uztailaren 23an, izan zela ere esaten da.

Horren aurretik, 1419an Pedro Velez de Guevara hil eta semea oraindik adinez gaztea zen artean, izan ziren aginte horren aurkako errebolta, baina gogor egin zioten aurre Oñatiko jaunaren indarrek. Mondragoetarek ere Zalgibarko dorreari su eman eta desegin egin zuten, Oñatiko jaunarena zen eta.

1447an, Pedro adinez nagusi izendatu zuten, eta Arrasateko herria baketze-

ko aitzakian, baina beti ere Bañeztarren mesede eginez, Mondragoen sartu zen. Juan de Avendaño eta Arratiako ezkutudun asko zekartzan lagun, eta oñaztarren, haien intentziak ikusita, Gomez Gonzalez de Butroni dei egin zioten laguntza eske eta 500

oinarzar etorri ziren. Arrasaten sartu ziren egunean Zarauzko jaunaren laguntza jaso zuen Pedro Velez de Guevarak, Oñatiko jaunak, eta ganboatarren botere guztiaz, 2000 gudari baino gehiagorekin, erabat hartu zuten Mondragoe.



SUTONDOAN

ANJEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (V)
(Gertatua)

Oinaztarri, trumoi eta dardara harrigarrien erdian bildotzak txabolaratu zituen eta Anjel pozik eta lasai zegoen txabolako atean kanpora begira, euriak lurrean ateratzen zuen zaplatekua entzuten, bada, ordurako, otsoen ahoan baino argi gehiago ez zen toki haietan. Halako batetan, Anjelen belarrietara heldu zen oso ezagun zitzaion soinu bat: terr, terr, terr, eta bera oker ez bazegoen behintzat, batean bat goruetan ari zen txabola txokoa. Ostots ikaragarri baten argi iheskorra, atzera begiratu eta emakumez jantzitako bat goruetan egin ahalean ari zen, baina aurpegia izan behar zuen tokian ezer ez zitzaion agiri, zirriborro bat besterik. Burubako emakume bat goruetan ikusi zuela iruditu zitzaion. Ez zen ikaratia gure mutila, baina toki horretan eta ordu horretan hain izaki bildurgarria ikusirik, buruko eta belarri zuloe-tako ileak, untxiak bezain zuzen jarri zitzaizkion, eta ez non zegoen eta ez zer egiten zuen etzekiela, ehiesari eman zion; baina handik berrogeita hamar metrotara zegoen harkaitzpe batera heldu zenerako, uretan beratutako ogi zati handi bat bezala zegoen.

ARREGI TAR TIBURTZIO

“PAL”

**Burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri Etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

**IBARRA
Garajea S.L.**



**EBRO
NISSAN**
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerías. 79 87 62

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 05 65



Jan Viator ikastetxean 1968-69 ikasturtean ikasten zuten mutikoak dira aste honetan ekarri ditugunak. Goiko ilaran ezkerretik hasita, **Eugenio Arregi, Iñaki Fernandez, Iñaki Jauregi, Arturo Lasa, Roman Gonzalez, Pedro Agirre, Jabier Agirre** eta **Balentin Arana**.

Bigarren lerroan, ezkerretik, **Leandro Garmendia,**

Imanol Arrazola, Eugenio Iturbe "Piti", Luzio Gallastegi, Jose Luis Larrañaga, Iturriaga, Joxe Ramon Agirreurreta eta **Karlos Errasti**.

Hurrengo lerroan, lehena ezezaguna, **Iñaki Alzelai, Iñarra anaia bizkiak, Juan Luis Bengoa Eskoriatzakoa, Jauregialzo, Joxe Bixente Jauregi** eta **Espinosa**.

Txema García, ezezagu-

na, ezezaguna, Nestor Maidagan, Jabi Armendariz, Martiarena, Enrike Fernandez, Lopez de Aretxaga, Aitor Aranburu eta **Jose Mari Agundez**.

Edu Arana, Jose Mari Lopez de Bergara, ezezaguna, Aitor Eriz, Iñaki Herrero, Juan Gregorio Alonso, Tirso Martinez eta **Luis García**.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- Etxea salgai Aretxabaletan, berrituta eta jantzita. 71 51 04 tfnora dei egin.
- Donostian gela bat edo pisua behar da. Tfnoa: 79 47 09.
- Bi oheko gela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua edo logela behar da Arrasaten. Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.
- Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut. Tfnoa: 71 41 21.
- Egunero goizeko 8etarako heltzeko kotxea behar dut Donostian. Gastuak erdibana. Tfnoa: 71 41 21.

Lana

- OHOKo klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantza.
- Esperientziadun neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Dei egin 79 21 63 tfnora. Utzi mezua erantzungailuan.
- Frantzesezko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 51. Eva.
- Ingeleseko ikastaro trinkoak ematen dira. Hasiera, apirilaren 19an. Tfnoa: 79 24 59.

- Etxean egiteko lan serioa eskaintzen da 18 urte baino nagusiagoentzat. Erantzuna eta informazioa jasoteko sobre bat sigilu eta guzti P. I. de Barrutia, 1-1. Ezk. (Aramaio) zuzenbidera.
- Lanak ordenadorez pasatzen dira. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.
- Leintz Akademian alemanezko, ingelesezko eta italianozko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 81 30 eta 79 51 09.
- Atxabaltan, etxera etorri eta OHOKo klase partikularrak emateko pertsona behar da. Tfnoa: 79 74 52.
- Esperientziadun neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Aramaio.

Salerosketak

- Moto Guzzi California Custom salgai. 450.000 PTA. Tfnoa: 79 87 62. Joxe.
- Nintendo kontsola, eurokonektorea behar duena, salgai 7.500 PTAtan. Hainbat joku 3.000-5.000PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- Nissan Vanette SS-AG furgoneta salgai. Tfnoa: 51 51 41.
- Mahai borobila, aukiak, aparadorea eta alfonbra batzuk salgai. Dei egin 8etatik aurrera 79 52 96.
- Pigini markako akordeoia salgai. Botoi sistema. 120 baju. 3+2 erregistro. Tfnoa: 79 99 29 eta 77 05 98.

- Bi urteko Adria markako karabana salgai. 5 plaza, berogailua eta oso prezio interesgarrian. Tfnoa: 79 84 55.
- Opel Corsa GT 1.300, SS-Z zuri kolorekoa salgai. Tfnoa: 79 42 78.
- Nikon F-801 argazki makina salgai. Oso ondo zaindua eta oso prezio onean. Tfnoa: 77 12 28. Jaber.

Denetarik

- Lentilak aurkitu nituen Ferrerias kalean, deitu 77 05 65 tfnora.
- Leioara egunero joaten naiz kotxez. Zuk ere bidaia bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitzake; kotxea baduzu hobeto. Dei egin asteburu eguerdian 79 50 20. Imanol.
- Larunbatean eguerdiko 1.30 inguruan urrezko pultsera bat galdu nuen Olarte kalean. Aurkitu duenak dei egin dezala 79 49 76 tfnora. Saritu egingo da.
- Aste Santuan Parisera joateko pertsona behar dut. Joan nahi baduzu, dei egin 79 89 31 tfnora.
- Lau hilabeteko txakur kume polit eta alaia ematen da. Beltza da. Tfnoa: 79 90 87.
- Hies-Ekimenak sexualitateari buruzko argazki ateratzeko modeloak behar ditu. Emakumezkoak nahiz gizonezkoak. Ez zaituz beldurtu eta etorri gugana. Jende askoren laguntza behar dugu! Tfnoa: 79 26 99.

Aste Gazte

Bekak

- Udako oporretan hizkuntz ikastaroak atzerrian burutzeko bekak, Irakas-kuntza Ertainetako ikasleei zuzenduak.
- Mojacar-ko Pintura Ihardunaldietan esku hartzeko bekak. Maiatzaren 1etik ekainaren 15era. Eskabideak egiteko epea: apirilak 5.

Ikastaroak

- Igeltsaritza eta beira-

gintza ikastaroak, 18 urtetik gorako langabetuei zuzenduak. Apiriletik azarora. Bergaran. Izen emateak: martxoaren 30era arte.

Xacobeo' 93

- San Viator Ikastola Santiagora erromesaldia antolatzen ari da. 2 aukera: ekainak 19-26 edo uztailak 10-18. Prezioa: 15.000 - 18.000. Izenemateak, apirilaren 7ra arte.

Dirulaguntzak

- Herriko gazte eta kultur taldeei gogoratzen zaie aurtengo dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea martxoaren 31n amaitzen dela.

Korrika

- Arrasateko Erdu-AEK Euskaltegiak larunbatean (martxoak 27) "kuestazio eguna" antolatu du. Egun osoan zehar materiala salgai eta jai giroa izango da.

"Soldadu gazteak kitarra du fusilik onena"

SILVIO RODRIGUEZ




Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Alberto de la Maza

Merche erropa dendakoa



- **Zer erosi ez dakien jende asko etortzen da?**
 Bai, baina gero eta jende gutxiago.
- **Gustatzen zaizu erropa saltzen egotea?** Bai, beharbada ohitu egin naizelako.
- **Ordutegiarekin ados zaude?** Beno, ordu batzuk gehiago libre banitu...
- **Abesti bat?** Oso zaila hori esatea. Eric Claptonen abestiak gustatzen zaizkit.
- **Emazteari egin diozun oparirik onena?** Seme bat.
- **Eta berak zuri?** Gauza bera, semea.
- **Urtebetetzeak ospatzen dituzu?** Bai, norma-lean erregalu txiki batekin.
- **Politikoetan sinisten?** Ez, oso desengainatuta nago horiekin.
- **Irakurtzea gustatzen?** Bai, baina ez dut liburu asko irakurtzen. Artikuluak, aldizkariak eta horrelako gauzak irakurtzen ditut.
- **Euriak tristetu egiten zaitu?** Ez, ez tristetu ez poztu, beharrezkoa bada...
- **Hotza ala beroa aguantatzen duzu hobeto?** Udako eguraldia gehiago gustatzen zait.
- **Animalia bat?** Txakurra. Lehen banuen bat, baina orain ez.
- **Asteko egunik onena?** Igandea, jai eguna delako.
- **Zeri diozu beldurra?** Ez dut uste ezerk beldurrik ematen didanik.
- **Kolore bat?** Granatea edo Athleticaren gorria.
- **Jertsea ala txalekoa?** Niretzat jertsea.
- **Gabardina ala berokia?** Gabardina gehiago gustatzen zait.
- **Beheko sua ala berogailua?** Beheko sua.
- **Ile hori batentzat kolore bat?** Urdina.
- **Eta beltzarana den batentzat?** Turkesa edo horia.

BERTSOAK

KRISIA

1
Ez dakit nondik ez dakit nora iritsi da notizia gure bailaran sartu zaigula oso barrura krisia. Harek eta guk zibilbor-este bat elkarren zerikusia bere bihotzak golpez baitakar heriotza zein bizia.

2
Lehenengo sasoi euforikoak geratu dira atzean, ostiraletan makinatxo bat izaten dira etxean andre eta gizon krisi aurrean umetxoaren antzean opor gehiago hartzean eta berari begiratzean.

ION IÑAKI IZARZELAIA



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



JOSU

**TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA**

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

**ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK**



77 05 65

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

Asun Balzola

Ilustratzaile eta idazle

Hemeretzi urte zituela hasi zen Asun liburuak ilustratzen. Jaiotzez bilbotarra den emakume honen lanen artean, ilustratu dituen ehun liburu baino gehiago eta idatzitako beste hogeai aipa daitezke. Arrasaten haur liburuen animazio astearren barruan bere lanari buruzko hitzaldia eman zuen.



— Adinaren arabera, ilustrazioa ere aldatu egiten da?

— Bai, normalean bai. Dena dela, nik erabiltzen dudana estiloan giroa isladatu eta deskribitzea gustatzen zait, eta giroarekin batera, baita pertsonaien sentimenduak ere. Hau da, tokien deskribapena ez zait hainbeste inporta. Eta koroleari dagokionez, akuarela da gehien erabiltzen dudana, teknika trasparentea, oso kolore leunak. Nik inoiz ere ez dut

.....
“Umeentzako libuetan, batez ere, ilustrazioak garrantzi handia izaten du, batzutan testuak baino gehiago”

ikusi kolorea erasokor bezala, beharbada euskalduna naizelako eta beti ditudalako buruan euri kolorea, grisa, berdea... hemengo eragina. Eta teknika aldetik, oso sinplea erabiltzea gustatzen zait. Ordenadorez ere egiten ditut gauza batzuk, baina ez ditut erabiltzen ordenadoreak dituen posibilitate guztiak, nik ezarritako programa sinplea bakarrik. Eta beno, esan behar da idazteko orduan ere teknika sinplea erabiltzen dudala, pertsonaien psikologia ispilatzea gustatzen zait.

— Zelako zentzua dute Arrasaten antolatu den bezalako haur liburuen animazio asteek?

— Ba, dudarik ez dago umeen artean irakurtzeko ohitura bultzatu behar dugula. Baina, nire ustez ardura gehiena gurasoena da, eurek ez dituzten ohiturak zabaldu nahi izaten dituzte euren seme-alabengan eta hori ezinezkoa da. Aitak eta amak egiten dutena ikasiko du umeek eta horregatik askotan askoz ere nahiago izaten dute telebistaren aurrean jartzea. Askotan esaten da irakasleen esku dagoela, baina hori ez da egia, formazioa etxean bertan bultzatu behar da eta baita irakurtzeko ohitura ere.

LABURRAK

UMEENTZAKO LIBURUAK EROSTEKO AHOLKUAK

- Jakin ezazu haurra lehen urtetik liburuarekin harremanetan jartzea mesedagarria dela.

- Jakin ezazu irakurtzen den familietan, haurra errazago irakurzaletzen dela.

- Saia zaitez haurrarekin batera inguruko liburudendak eta Udalbibliotekak ezagutzen.

- Liburu-erosketak ez itzazu fetxa berezietan bakarrik egin.

- Liburuak ahalik eta bariatuenak eros itzazu.

- Liburuak ondo aukeratzen saia zaitez. Hona urrezko araua: “Ondo aukeratutako liburu gutxi hobe, erdipurdizko asko baino”.

- Ez ahaztu, adin hauetan behinik behin Liburuaren ilustrazioak, testuak hainbat garrantzia daukala.

- Liburuaren orrialdeetan agertzen den ingurunea zenbat eta hurbilago egon haurrarengandik, askoz ere adierazgarriago izan dakioko.

- Adin hauetan edozein liburu, baita helduenak ere, libururik erakargarriena izan daiteke haurrarentzat, baldin eta helduok haurra indar afektiboz biltzen badakigu. Eta, alderantziz, libururik xarmagarriena ez dela haurrarenagana iritsiko baldin eta helduok ez bagara berarekin harremanetan jartzen.

“Liburuak, lehen adinetan behinik behin, nahi eta nahiez, helduon presentzia dinamikoa behar baitu”.

- Normalean, ez zaitez fida datu bibliografiko zehatzik ez dakarren liburuarekin.

**ESKORIATZAKO IRAKASLE
ESKOLAKO LITERATUR MINTEGIA**

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

ASTRONOMIA

KANPOTIK BEGIRA (II)

Gure eguzki sistema-ren tamainu erlatibo ari ginen konparatzen aurreko alean.

Adibidearekin jarraituz, hurrengo planeta Martitz da, bere tamainua kanikatxo batena izango litzateke eta bere orbitaren diametroa 150 metro karratukoa (futbol zelaiaren kanpotik).

Jupiter laranja bat bezala agertuko litzai-guke, bere orbitaren diametroa 500 metro karratukoa izanik.

Hurrengo, Saturno, beste laranja bat eta kilometro bateko orbita ibiliz.

Urano, mandarina bat eta bi kilometrotako orbitan.

Neptuno, beste mandarina bat hiru kilometrotako orbitan.

Azkenean Plutoi, kanika bat bezain txikia, orbita oso eliptiko bat korrituz, batzuetan Neptuno baino gertuago, (2,5 kilometro karratutara) beste batzuetan urrunago (4 kilometro karratutara).

ERNEST BORN



Korrika apirilaren 1ean iritsiko da Arrasatera, goizeko 10.30ak aldera.

Ekintza ugari Korrikaren inguruan

Korrika 8 hurbilduz doan heinean, areagotzen ari dira kultur eta jai-giroko ekintzak. Gaur bertan, Alkartu Elkartean bertsotriki-afaria burutuko da, Jon Iñaki Izarzelai, Jon Sarasua, Arantzazu Loidi eta Arrasateko trikitilarien laguntzaz.

Bihar, larunbata, Korrikaren aldeko kuestazioarekin batera, jai-giroko ekintza ugari burutuko da egunean zehar. Goizeko 10.30etan etxalferuen jaurtiketa eta diana; 11etan ikastetxeetako ikasleek eta Hamabostaldi Taldearen partaideek muralak egingo dituzte hormetan; 12.30etan, berriz, Lore Gazteak eta Arroztaitz dantza-

taldeen kalejirak eta dantza-saioak; 4etan, Herriko Plazan, Orkatz eta Besaidek antolatutako rappel eta tiro-linak umeentzat eta AEDko Ludotekak antolatutako haur-jolasak; 5.30etan Altxorraren Bila jolasa, altxorra Korrikako Testiguaren imitazio bat izango da eta irabazleek korrika-txiki eta sinbolikoa egingo dute; 6etatik aurrera, Kiliki eta Gaiteroen konpartsa eta Goikobaluren kantuak entzuteko aukera kaleetan.

Ekintza egitarauaren aipamenari bukaera emateko, aste osoan zehar Harresi Aretoan zabalik egon den erakusketa bihar itxiko dela esatea, ostegunean euskara eta rock-ari

buruzko mahaingurua burutu zen, Fermin Muguruza eta Delirium Tremens-eko kantariak.

Kilometroen salmenta

Ekintzak antolatzeaz gain, Korrika Batzordeko kideak jo eta ke ari dira kilometroen salmentan, eta adierazten zutenenez, salmenta martxa onean doa. Orain arte erosi edo erosteko hitza eman dutenak honako hauek dira: Besaide, Orkatz, San Frantzisko Xabier Ikastola, Eskola Politeknikoa, San Viator, HB, Euskalan, AED, Maritxu Kajoi Batzordea, Udaletxeko HB, EuE eta EAKo zinegotziak, Al-Andalus, Konpartsa, SUDC, Lanbide Eskola eta JMA.

IZAGIRRE
barategia


Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

· AIPUA ·

"Inork inbidiarik ez dion gizakia ez da zoriontsua"
Esquillo

· JEROGLIFIKOA ·

DDZDD

Nola etorri zarete?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8				9		
10						
11						12
13			14	15	16	
17		18				
19						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Kandidatu. 8. Arrasate Komunikabideak. 9. Osatu aditzaren infinitiboa. 10. Saka. 11. (Ald.) Umezain. 13. Donostiako disketxea. 14. Nafarroako oihana. 17. Gatzatu. 19. Atxakia.

Bertikalak 1. Zenbakia. 2. Zurginak. 3. (Ald.) Uztia. 4. Arraultzopil. 5. Lurra goldez landu. 6. Bete. 7. Kasik. 12. Omen. 15. (Ald.) Barrearen onomatopeia. 16. Bordatzeko ehun egokia. 18. Bi, erromatar erara.

· HOROSKOPOA ·

Aries Bi belarririkorekin askoz ere hobeto egongo zinateke. Beraz, egin beste zulo bat.

Taurus Hara kontseju on bat: gutxiago deskantsatu eta lan gehiago egin.

Gemini Oso umore txarra izango duzu aste osoan.

Cancer Zu gabe egunak triste eta luzeak iruditzen zaizkit.

Leo Afari ugaritarako gonbiteak jasoko dituzu, baina betiko kontua: diru falta.

Virgo Lasai, azterketa bat gaizki egiteagatik ez zaizu mundua gainera eroriko.

Libra Telefono dei anonimo ugari jasoko duzu. Auskalo norenak diren!

Scorpio Erloju berri bat oparituko dizute beti berandu heldu ez zaitez.

Sagitarius Urtero asterik onena izango da hau zuretzat.

Capricorn Zaila da baina, animo! Segi aurrera noizbait lortuko duzu eta.

Aquarius Orain arte izan duzun zortea laster amaituko zaizu.

Piscis Bi mutil maite dituzu, zein baino zein gehiago. Utzi maitasunak gida zaitzan.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• HIRUNE IRIBECAMPOSEN GOMENDIOA •



• PROGRAMAZIOA •



- 28 Igandea**
 8.15 Monterock
 8.45 Mondragol
- 29 Astelehena**
 1.30 Eguerdiko Berriak
 1.35 Mondragol
 7.30 Dokumentala
 8, 8.30, 9 Berriak
 9.30 Mondra Sport.
 10 Asteko zinea:
 Polizi Akademia Eroa II
- 30 Asteartea**
 1.30 Eguerdiko Berriak
 1.35 Mondra Sport
 7.30 Dokumentala
 8, 8.30, 9 Berriak.
 9.30 ATB Pub
 10 Asteko zinea:
 Polizi Akademia Eroa II
- 31 Asteazkena**
 1.30 Eguerdiko Berriak
 1.35 ATB Pub
 7.30 Dokumentala
 8, 8.30, 9 Berriak.
 9.30 Tertulixan
 10 Asteko zinea:
 Polizi Akademia Eroa II
- 1 Osteguna**
 1.30 Eguerdiko Berriak
 1.35 Tertulixan
 7.30 Dokumentala.
 8, 8.30, 9 Berriak.
 9.30 ATBketan.
 10 Asteko zinea:
 Polizi Akademia Eroa II
- 2 Ostirala**
 1.30 Eguerdiko Berriak
 1.35 ATBketan
 7.30 Dokumentala
 8, 8.30, 9 Berriak
 9.30 Monterock
 10 Asteko zinea:
 Polizi Akademia Eroa II

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

Bidez bidez:
JEROGILIFIKOA
 1a. 12. Et. 15. Rak. 16. Tul. 18. II.
 Ukra. 4. Tortila. 5. Goldatu. 6. Ase. 7.
Bertikal 1. Hamaita. 2. Arozak. 3.
 14. Irati. 17. Kaitatu. 19. Akiakula.
 9. Osa. 10. Morrate. 11. Aiat. 13. Iz.
Horizontalak 1. Hautagat. 8. Arko.
GURUTZEGRAMA

mokasin
Zapatak eta osagarriak
 Kontzeziño, 6
 Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

LODITASUNA, LIPOESKULTURA, ZELULOLIPOLISIA.
 Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.
ESTETIKA KLINIKA
 Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
 ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
 Uribe Auzoa
ARRASATE
 Tfnoa: 79 98 94

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



SUKALDE LILURAGARRIAK!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

URRETXU

Tfnoa: 72 50 75

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42